

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Teodora Gerediaga Gastelu

*Amorebieta-
Etxano, Bizkaia
(1928-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Arrinda auzoan jaio zen bost neba-arrebadun familia batean, gaur egun botata dagoen baserri batean. Etxano eta Zornotza urak banatzen zituen eta beraien etxea Zornotzan zegoen, auzoko besteak Etxanoko herrikoak izan arren. Aita Etxanoko Altzibar errotakoa zen eta ama Boroakoa. Bizimodu gogorra baina polita izan zutela dio Teodorak. San Migeleko eskolara eta josten ikasteko aukera izan zuen, besteak beste. Etxekoak Etxanoko Urritxera joan ziren eta berak ere bertan osatu zuen familia Mendatako semea den [Anastasio Beaskoetxea](#)gaz batera.

Zintak

AMO-141

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2013-03-02
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

AMO-142

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2013-03-02
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Beraien jaiotetxea Zornotza zen lehen, orain Etxano

- **Erref:** AMO-141/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Bere jaiotetxea gaur egun Etxano izan arren, lehen Zornotza zen. Bera Zornotzako parrokian bataiatu zuten. Urak ebakitzen zuen muga. Lehen jaunartzea Etxanon egin zuen. Aita Etxanokoa zuen eta ama Boroakoa.

Transkripzioa

- Arrindden, Markos jaidxo zan Lekuen. Arrindde Arrindas, Zornontzako partie da.
- Etxano.
- Etxano Arrindas Etxano sekule be ez da izen. Oin Etxano-Amorebieta dana da, baia Arrindas. Ni nau bautidxeute Zornontzako parrokidxen. Arrindas gure etxie izen zan, ba Urumin esate baterako. Urumin.
- Etxano zan.
- Etxano Agustin jaidxo zan alderdidxe eta Bitor bizi, ointxe, ontsu urtebetie lehengo domekan izen zan, Bitor jaidxo zan eta Jose Arza-ta be Zornontzako partiek. Urek ebaitten zeuen, Zornontzako partie. Ta gure etxie ya Zornontzako partie.
- Errekien beste partien.
- Bai. Haren uren beste partie. Ure errekie ez zan izen, ur txarko bat pasetan zana. Ta gu Arrindas jaidxota etxien ta bautidxeute Zornontzako parrokidxen eta ezkondu be Zorrontzan ein nintzen eta lelengoko jaunartzie ein neuen Etxanon. Ta ama gure ama letxerie izen zan ezkondu zanetik eta gehidxau, ze amamagaz Boroan jaidxo bera, ta nire aitte jaidxo zan Etxanon, Etxanoko partien. Ta Zirillen-ta aitten anaidxie zan. Ta harek Etxanoko partien jaidxoak. Ta gure ama Boroan: oin ha benenoen fabrikie, ez daitz er dan. Hantxe baserri baten Boroan jaidxoa.

2. Ama esnez betetako bularretatik gaixo

- **Erref:** AMO-141/003
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:03:12. **Bukatu:** 00:06:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Neba umetan hil zen. Amak bular asko zuen eta ez zuenez nori eman gaixotu egin zen. Hori dela-eta, ume bat izango balitz legez, euren osabak atera zion esnea eta horrela osatu zen. Gero Teodorak berak hartu zion amari bularra. Esne asko edo luzaro izatekoa zen ama.

Transkripzioa

- Ta ezkondu ziren Arrindera. Ta lelengoko nebie euki geñun Juan Luis eta gero Mari Karmen eta gero ni. Eta gero nire hurrungo beste bat Domingo izen zana, baia zortzi egunegaz-edo hil zen. Eta orduen amak bular asko eta ona eukitten zeuela eta handik umie hil ta denpora gitxidxen txarto pareu zen, ta titidxe zabalduete. Eta egon zan kalenture, kalenture esaten dot nik sukarra esaten derien modure, egon zan kalenture handidxegaz ta ogeratute. Ta ba medikue ekarri otsien ta ba titi zabalduete dekola eta han

zertu ein biher dala eta pañu beroakaz, ta haregaz eta horregaz eta ez zan zertzen ta horrek Zirilen aittek esan otson gure aitteri erregular: "Zirilo, andrieri bizirik etara gure bozun ein biher dotsazu ume baten modure txupeu ta etara palankana batera. Ta berak hasten zan, baia ez euen eukin barrurik eta botaten paretan zan. Ta. "kendu zaitte!". Ta horrek, Zirilen aittek, tio Patxi neure aittebitxi zen eta ama amabitxi. Ba Zirilen aittek berak txupeu ta bota, txupeu ta bota, txupeu ta bota. Ta ya buler bidxek halantxe bigundu dotsozan pañu beroak pittien-pittien ipintten ta halangon baten ba nehikoa bigune etor zanien, "ba oin txakurtxu bet-edo ekar biher leidxako /bileidxako/ honeri edateko. Eta amak esan ei zeuen: "Ai, zelango deskantxue ipiñi dustezu!". Sarriten kontetan zerien. "Zelako deskantxue". Nik euki neuzen ba orduen ba hiru, nire hurrungokoa izen zan mutille, urte bi eskas-edo euki zeuela ba hiru urtetxu-edo. Ta: "A bai? oin badakitx ze ingo dodan /eingoan/. Ba hau bulerrik, osea jan barik ta "ama logure ta logure" ". Eta ipiñi bulerrien eta "pla-pla-pla-pla" edaten hasi zala, edaten hasi nitzela eta halan ba neuk edaten notsela eta bulertxue eta luzero bulerra emotekoa umieri.

3. Ama esne-saltzailea, goizean goizetik beharrean

- **Erref:** AMO-141/008
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:19:52. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Arrindan bizimodu gogorra eta polita zuten, poza zen nagusi. Labrantza handia zuten eta lau behi zituzten. Ama esne-saltzailea zen eta goizean goizetik hasten zen beharrean, zortzietako etxetik irteteko. Auzoko esneak etxerik etxe batzen zituen. Etxera bueltan ogia ekartzen zuen.

Transkripzioa

- Ba beittu, ba bizimodu gogorra ta politte ta poza. Ni ba labrantzan handixe eukin geñun ta jeneralien lau behi egoten zan. Ama esniekaz goizien zortziretan urtetan zeuen, goizien goizetik seietan jagi eta beren kantiñek eta beren geuzek ipiñi ta zortziretan urtetan zeuen. Euzoetako esniek be ekarten dotsiezan eta asto baten esnez beteta, etxerik etxe esniek. Ta gero bueltan, panaderidxetik ogidxek eta erreziñoako denporan be reziñoa be bai. Ta erreziñoako denporan ogidxek ekarten zeuzenak.

4. Gurasoak eskolarik gabekoak

- **Erref:** AMO-141/009
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Beraiek Dudeako San Migeleko eskolara joan ziren, eliza ondoko eskolara. Eskolara zortzi urte zituztela-edo hasten ziren. Beraien gurasoek atzamarragaz

sinatzen zuten, ez baitzekiten idazten; hala ere, memoria ona zuten kontuak egiteko.

Transkripzioa

- Ba gu eskolara lelengo San Migelera joaten giñen, ze San Migel de Dudea, egon zara handik ingerutik? Ba elizien ondoan eskolatxu bet dau. Ta hara eskolara joaten giñen. Baia eskolara orduen jente asko, ume asko egoten zana lez etxietan ba zortzi urtera arte-eta ezin giñen sartun eskolara. Ta orduen ba itsuen herrixen tuertoa "campeón" esaten derien modure, bai joaten giñen ez dait kanpoan egon zan matrimonño bat, Ameriketara esaten, 'Amerikanue' esaten otsien, baia ez daitz ze parejetan. Bata etxe handi baten kridxeda ba idxe euzoko famelidxe alde bateko eta bestekoa, ba euzoko famelidxe ez dakit gaztetan arkalegaz joan bazien ala gero junteu zien han ta bestie ba kaballuen zainedo ta bestie ba beste zeuzetan. Ta harek ba eskola gehitxuau, baserriko gure guresoen-ta baiño eskola gehitxuau. Gure guresoak firmeu eskuegaz eitten zerien, ze eskolara ez zielako joan, baia memoridxe bata baiño bestiek hobie. Ta guk lapizegaz etaraten dogun zerera, esaten doskun: "Bueno, dekot kobretako ba batzuk atzerantza, atzeratuko ogidxe-eta, hain denboratik eta horra arte eta ba dekot ba honenbeste kobretako ta eguneko honenbeste". Berak eitten dotson holan ta palu bet eta alde batien ipintten zeuzen pezetie edo diru neusidxe ta kanbidxoak bestalderantza kalendaridxoan. Eta gero etaraten doskun ha kalendaridxea eta esaten doskun "umiek" izena sekule bez. Holan, deittu /biher zanian/ bizanien izen ezik. Beti "umiek". "Umiek, aber batek hartu eizue lapize eta etara eistozue etara eistozue garbidxen kontue honena". Ta ipintten zeuen kontue ba eitten gañun ta igual sumaukeran ba despistetxuen bat lantzien behin, ba zeuzer. "Ez! horrenbeste, hori ondo ez dozu ein! Barriro eizue". Berak buruz etarata exakto eukitten zeuen ta orduen bai: "oin bai". Ta aittek be bardiñe, buru ona! Ta nehikoa diru Jaingoikoari eskerrak manejaue zerien bidxe, ze bata biño bestie fiñauak zien-ta.

5. Aita umezurtz umetatik morroi

- **Erref:** AMO-141/010
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:28:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bere aita umezurtza zen eta umetatik joan behar izan zen morroi Bilbo aldera, Deustura hain zuzen ere. Etxean ez zuten urik izaten eta iturritik ekartzen zuten ura. Aitak han zuen bizimodua kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta aitte zan ba umezurtze izen zien aitte ta neba-arrebak. Ta zortzi urterako kridxeu joan zana baserri batera. Ta handik hamalau urtegaz Bilbora, Deustura, ta orduen sasoi ba Bilbon ez zan egon urik, ba mendittik etorten zana tuberidxetan hartute eta zer ekarten zerienak labadero, osea, lehenau eitten zien modure, ba ein erropie garbitteko harrixegaz ba labaderoa. Ta orduen etxietan ez zanala lez egoten urik, itturri gorritik ekarten zerien ure edateko ta pitxerretan edo potijuetan edo

kantiñetan-edo nonondik, baserridxetan gero eitten izen dogun modure geuk. Eta Deustun joan zan etxien eukin zerien laba, osea hori, pozue erropie garbitzeko ta alanbradure handixek ipinitte eskeitteko. Ta hori neska bat kridxedie ta gizona izeten ei zen, andrie bendejakaz akostunbertan zeuena. Amental zuri-zuri-zuri-zuridxegaz eta señora itzela lodidxe ez zerien eukin famelirik. Eta gizona ei zen behi bet esnie eukitteko etxerako ta nonorako be bai euzetarako eta be bai. Ta burdidxe karroak ibiltten zien modure batzeko ba basurie esaten dana, satsa, etxietan eitten dana ba oin kontenedoretara-eta botaten dienak modure, ba orduen basurerueri txistu bet jo eta bejatu. Ta oilloak eukitten ei zeriezan korralien eta ortuek ta andrie izen ei zen ba ortuetan hartzen zerien jeneroa batzen zerien satsakaz, zaramakoakaz, aparteu papelak eta zerak eskobara bategaz ta satsa ein eta behidxe eitten zeuen satsagaz, ba ortu-jeneroa.

6. Aitak andre beharrak egiten zituen

- **Erref:** AMO-141/011
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:28:07. **Bukatu:** 00:28:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Aita Deustun (Bilbo) egon zen morroi umetan. Bertan, andre beharrak egiten ere ikasi zuen; gerora ere, ezkondu ostean, garbitasun lanez arduratzen zen etxean. Beraien etxea jauregi baten modukoa zen.

Transkripzioa

- Ta gure aitte defuntuek ba laguntzen dotsien han neskieri, kridxedieri erropak siketzen zienien danak, bidxen artien tiretu, dobleu ondo-ondo-ondo ta plantxeu ta etxie garbittuten be igual eta edozetan, ta jakin zeuen andra batek ein leken biherrak eitten horretako geuzek. Andra baten biherrak etxie eukitten zeuen berak gu txikidxe izen giñenien be, dana lustriegaz, zure etxie zan palazidxo baten moduko etxie, ze eurek eta uzandrie bizidxe zan.

7. Goizean goizetik baserriko beharretan

- **Erref:** AMO-141/017
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:45:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxean bakoitzaren beharrak ondo banatuta zituzten. Goizean goizetik hasten ziren eginbeharrak beraien etxean. Arlo handiak zituzten jorratzeko. Bordatzen eta josten era aritu zen; nebak, oster, Deustuko salearretan ikasi zuten.

Transkripzioa

- Ba bere biherretan, baktza bere biherretara. Ta etorten giñen gero zortziretan ba etorten giñen danok armozetan eta ez bagiñen, libre

eukitten bagañun-edo joaten giñenien, libre egoten zienak, osea, solora barriro ta soloan handidxe arlo handidxe ta erain. Aiztieki makiñe baten modure esan doana, zultzen zeuzen, erraidxetu bet aitteki hiru hortzeko zeragaz, illarak artez egon deitzezan, ta gero besteiki, zultu. Ta nik arto eta babie edo zera erain atzetiki eta gero behe-behien pareu eta danok ganauegaz bariki, eitten gañun uruntxutsuena bota zultora eta danak artez-artezi ipini, dana bardin-bardin-bardintsu ipini eta solo arlo handidxe labrantza handidxe ta bueno. Ta holantxe, ta holan zan bizimodue. Gero josten, bordetan ta hatan eta horretan eta neba, neba gaztiaua, ni baiño lau urte gaztiaua, Pablo, ta Kalisto sei urte ni baiño gaztiaua, horrek egon zien bosna urte salesianuetan Deustun, ba ezetuko dozu "Salesianos" entzunde, ezta? Deustun. eta hori eitten, zera.

8. Ahizpak jositako arropak

- **Erref:** AMO-141/020
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:51:35. **Bukatu:** 00:52:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Bere ahizpagaz batera hasi zen josten ikasten Larrabidean. Bere ahizpak egiten zizkion arropak inbidia ematekoak ziren.

9. Dantzan nekatu barik

- **Erref:** AMO-141/021
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:52:37. **Bukatu:** 00:57:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Teodora oso dantzaria izan zen gaztetan, ez zen nekatzen dantzan. Soinu-jotzaileak ere harritu egiten ziren. Behin Bizkargitik behera zetozela, Autzaganekeo tabernetan bizitakoak kontatzen ditu. Kuadrillan egiten zituzten joan-etorriak.</p>

10. Neba bat Afrikan hil eta besteak Beran istripua

- **Erref:** AMO-142/003
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Gazte garaia polita izan zela dio. Neba hil egin zen Afrikan eta benetako dolua bizi izan zuten. Beste neba Beran egon zen soldadu eta istripua izan zuen. Aita kezkatu egin zen eta bera joan zen nebarengana.

11. Txantxangorria lagun

- **Erref:** AMO-142/005
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:09:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Txantxangorria bere lagunik onena dela dio. Haren kantua entzunda, albiste onak datozkiola pentsatzen du; txepetxa entzunda oster, tristura sentitzen du bihotzean. Nebaren bila joan zen Beraraino.

12. Gabonetako ospakizunak

- **Erref:** AMO-142/013
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:26:37. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Erregenetan opariak lagatzen zizkioten. Gabonak politik izaten zirela dio; sagarrak labeen erre eta azukrea eta ardoa nahasten zizkien. Turroiak ere asko jaten zituzten. Gabonetan Bilboko bi etxetara txerriak eramatera joaten ziren, gerraostetik lagunak zirelako.

13. Gerratik ihesi

- **Erref:** AMO-142/016
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:36:02. **Bukatu:** 00:41:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian, etxetik alde egin behar izan zuten. Aita abereekin joan zen eta beraiek aitarien etxera jaitsi ziren, eta handik errotara. Aitak behia laga zien hiltegian. Behiak ama zela ezagutu zuen kontatzen du.

14. Bonbardaketak bertatik bertara

- **Erref:** AMO-142/018
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:44:48. **Bukatu:** 00:48:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Tunelean babesten ziren bonbardaketetatik. Emakume bati behi-esnea ematen zioten, haurrari eman ziezaion. Bonbardaketa batean ingurua zela txikitu zuten kontatzen du.

15. Bonbardaketetan hildakoak

- **Erref:** AMO-142/020
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:48:27. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketan hil zirenen berri ematen du. Neba onik atera zen baina egunetan berba egin ezinda egon zen. Inguruko bizipenen eta elkartasunaren berri ematen du.

16. Gerra garaiko gosea

- **Erref:** AMO-142/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:53:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian, ogibitartekoarekin edo taloarekin kalera irtetzen zirenez, eskuetatik kentzen zieten.

17. Gerra garaian algarroba probatu zuenekoa

- **Erref:** AMO-142/023
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:56:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian algarroba probatu zuen eta gustatu egin zitzaion. Andre nagusia zaintzen egoten zen.

18. "Casas baratas" izeneko etxeak

- **Erref:** AMO-142/024
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:56:58. **Bukatu:** 00:59:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

"Casas baratas" esaten zieten etxeak zelakoak ziren kontatzen du. Bere izeba bat bizi zen han.

19. Amak Frantziara joan nahi ez

- **Erref:** AMO-142/025
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:59:03. **Bukatu:** 01:01:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Familiako batzuk Frantziara abiatu ziren itsasontziz. Bere amak ez zuen joan nahi izan.

20. "Tiriki tauki tauki" kopla

- **Erref:** AMO-142/027
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 01:02:42. **Bukatu:** 01:03:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

"Tiriki tauki tauki" kopla abesten du.

21. "Hasi goiko kalia" kanta

- **Erref:** AMO-142/028
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:03:03. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Hasi goiko kalia" kanta abesten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com